



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GRADUA
HISTORIAKO SAILA

KARELIERA: EREMU URRIKO
HIZKUNTZA BAT FINLANDIAREN
ETA ERRUSIAREN ARTEAN

2021/2022 IKASTURTEA

Egilea: Lierni Larrañaga

Tutorea: Xabier Zabaltza

LETREN FAKULTATEA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD DEL PAÍS
VASCO

Laburpena

Kareliera eremu urriko hizkuntza finiko bat da, beti egon da beste herrialde batzuen menpe, eta urte luzetan finlandieraren dialektotzat hartu dute. Finlandiaren eta Errusiaren artean kokatzen da, baina gutxi dira karelieraz dakiten biztanleak eta gaur egun ez du inongo ofizialtasunik. Karelia bi herrialde horien gatazka-arrazoia izan da urte luzez, baina Finlandia XIX. mendean hasi zen zonaldearekiko interesa agertzen, bere kulturaren zati bat Karelian kokatzen zela aurkitu baitzuen. Sobietar iraultza hasi berri zela Gerra Zibila hasi zen Finlandian, «gorrien» eta «zurien» artekoa. Zuriek irabazi zuten gerra hori, eta Karelia bere barne izango zuen «Finlandia Hobe» baten ideia sortu zuten. XX. mendean zehar kareliera zein finlandiera izan dira ofizialak Karelian, Finlandiaren eta Errusiaren arteko erlazioaren arabera. Horrez gain, 1930eko hamarkadako Stalinen purgak asko zentratu ziren Karelian eta bertan bizi ziren finlandiarretan, eta izugarrizko garbiketa etnikoa jasan zuten. Bigarren Mundu Gerra hasi eta hortik gutxira hasi zen Finlandiaren eta Sobietar Batasunaren arteko Neguko Gerra, eta bertan Finlandiak bere Kareliako lurren zati handi bat galdu zuen. Hala ere, hortik gutxira Finlandia Alemaniarekin batu zen Bizargorri Operazioan, eta berehala hasi zen Finlandiaren eta Errusiaren arteko Jarraipenaren Gerra. Gerra hartan Finlandia Ekialdeko Karelia okupatzera iritsi zen, baina laster bukatu zen «Finlandia Hobe» bat lortzeko ametsa, Armada Gorriak Karelia gehiena bereganatu zuenean. Horren ondoren Errusiak herrialdeko leku ezberdinetako jendez bete zuen Karelia, eta, gainera, gerra bakoitza bukatu ostean zonaldea egoera negargarrian geratu zenez, Finlandiara lekualdatu behar izan zuten kareliarrek. Beraz, kareliarrak gaur egun gutxiengo etniko bat dira beren herrialdean. Gerraren ondoren kareliera berpizteko eta bere egoera hobetzeko saiakerak egon dira, eta eskubide gutxi batzuk lortu diren arren egoera ez da asko aldatu, eta ez da hizkuntzaren ofizialtasuna berreskuratu, ez Finlandian ez Errusian. Hezkuntzan karelieraren erabilera urria da, eta egunerokotasunean ere, baina badaude karelierarekiko interesa agertzen hasi diren gazteak, eta baliteke horrek eremu urriko hizkuntza hori biziberritu dadin laguntzea.

Hitz gakoak: eremu urriko hizkuntza, «Finlandia Hobe», Mendebaldeko Karelia, Ekialdeko Karelia, Kareliako itsmoa, Kareliako Errepublika, tokiko hizkuntza.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Hizkuntzaren deskribapen orokorra	5
3. Kareliar lurren gaineko borroka	6
3.1. Finlandia eta Errusiaren arteko gatazkak	6
3.1.1. Finlandiaren independentzia eta Tartuko Tratatua	7
3.1.2. Stalinen garbiketa-politikak	8
3.1.3. Idatzizko kareliera bat	9
3.1.4. Neguko Gerra	9
3.1.5. Jarraipenaren Gerra	11
3.1.6. Gerraren amaiera	13
3.2 Karelia eta kareliera gerraren ondoren	14
4. Kareliaren egoera eta kareliarren identitatea gaur egun	15
4.1. Kareliera eta kareliar identitatea Errusian	15
4.1.1. Errusiako egoeraren analisia	15
4.1.2. Ondorioak	16
4.2. Kareliera eta kareliar identitatea Finlandian	17
4.2.1. Finlandiako egoeraren analisia	17
4.2.2. Ondorioak	18
5. Kareliar identitatearen gaineko ikerketa	19
5.1. Elkarriketak	20
5.2. Ondorioak	23
6. Ondorio orokorrak	23
7. Iturriak	25
7.1. Bibliografia	25
7.2. Bestelako iturriak	27

1. Sarrera

Lan honetan karelieraren historiari buruz hitz egingo dut. Kareliera Karelian hitz egiten da, hau da, Finlandiako Golkotik Itsaso Zurira arteko lurraldean. Gaur egun gehienek hizkuntzat hartzen duten arren, historian zehar finlandieraren dialektotzat hartu izan da.

Karelia beti egon da beste herrialde batzuen mende, eta batez ere Errusiaren eta Finlandiaren artean. Horrek hizkuntzaren egoeran nahiz kareliarren identitatean eragin handia izan du. Izan ere, eta lan honetan zehar hobeto azalduko dudan moduan, Errusiaren eta Finlandiaren arteko erlazioaren arabera hizkuntza ezberdinak izan dira ofizialak Karelian.

Europako eremu urriko hizkuntzen artean, karelieraren historia lantzea erabaki dut Errusian eta bertako historian nahiz hizkuntzetan interes handia dudalako. Horrez gain, Errusian egona naizenez eta bertako kultura eta hizkuntza ezagutzen ditudanez, errusierazko artikulua irakurri ahal izan ditut, eta karelieraren historiari buruzko informazio gehiagora iritsi. Bestalde, bertako herritarrekin errusieraz komunikatzeko gai izan naiz.

Lan honetan zehar galdera honi erantzuten saiatu naiz: «zein da gaur egungo kareliarren identitatea?». Horretarako, lehenik eta behin, hizkuntzaren deskribapen orokor bat eman dut. Ondoren, karelieraren eta Kareliako historian murgildu naiz, eta batez ere Finlandiak eta Errusiak izandako erlazioan. Jarraian, hizkuntzaren eta lurraldearen iragana kontuan hartuta, Finlandiako eta Errusiako kareliarrak gaur egun zer sentitzen diren aztertu dut: errusiar, finlandiar edo kareliar.

Lan hau egiteko lehenik eta behin zenbait artikulua eta liburu irakurri ditut ingelesez eta errusieraz. Hortik abiatuta idatzi dut karelieraren historiari buruz dakidana. Segidan, eremu urriko hizkuntza horren gaur egungo egoeraren eta haren hiztunen identitatearen irudi bat eraikitzeko, artikuluetan irakurritakoa idazteaz gain, elkarrizketak egin dizkiet Errusiako nahiz Finlandiako hainbat kareliarri, eta haien ikuspuntua aditzera eman dut. Beraz, metodologia historikoa soziolinguistikoarekin osatzen saiatu naiz.

Eskerrak eman nahi dizkiet, alde batetik, elkarrizketak egiten lagundu didaten kareliar guztiei, nik lan hau egitea lortu nezan esfortzu bat egin dutelako. Bestetik, Iker Sanchori eskertu nahi diot errusieratik eta errusierarako itzulpenean eman didan laguntza, eta,

azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot nire tutoreari, Xabier Zabaltzari, izan ere, lan honetarako ezinbestekoak izan dira hark gomendatutako iturriak eta eman dizkidan aholkuak, eta bere gidaritzarik gabe lan hau ez litzateke izango orain dena.

2. Hizkuntzaren deskribapen orokorra

Kareliera hizkuntza uralikoen artean dago, eta, haien barruan, finikoetan. Ondorengo hauek dira hizkuntza finikoak: livoniera, estoniera, votiera, ingriera, finlandiera, kareliera eta bepsaera. Batzuetan ludiera (lyydi/luudi) beste hizkuntza bat dela esaten den arren, ludiarrek beren burua kareliartzat hartzen dute. Estoniera eta finlandiera izan ezik, beste guztiak eremu urriko hizkuntzak dira: votierak 25 hiztun ditu, ingrierak 300, karelierak 62.500, bepsaerak 6.000 hiztun ditu Errusiako ipar-mendebaldean, eta livonierak 15 hiztun Letonian (Abondolo, 1998: 96). Horien artean karelierak finlandieraren eta bepsaeraren antz handia du. Horrez gain, errusierak eta beste hizkuntza indo-europar batzuek eragina izan dute karelieran, eta errusiar fonologia eta sintaxia barneratu ditu karelierak.

Geografikoki, Kareliako lurraldetzat hau hartzen da: lehenik eta behin Kareliako istmoa (errusieraz Karelski peresheiek). Hau da, Ladoga/Luadogu aintzira eta Finlandiako Golkoaren arteko zonaldea. Ladoga/Luadogu aintziraren ingurua ere sartzen da Kareliako istmoaren barruan, eta baita Olonets/Aunus deritzon tokia ere (Ladoga/Luadogu eta Onego/Oniegu aintziren artean). Ondoren, Onego/Oniegu aintziraren ekialdearen eta Itsaso Zurira arteko zatia daukagu, eta Kandalaksha/ Kandalakši errusiar herria. Hala ere, toki garrantzitsuenak Olonets/Aunus eta Itsaso Zuriko inguruak dira. Horrez gain, Tver zonaldean, San Petesburgon eta Novgoroden hitz egiten dute kareliera, kareliarrak toki horietara mugitu baitziren 1617an (Abondolo, 1998: 99-100).

Errusiar hizkuntzalariek olonets/aunus, lyydi/luudi eta «kareliar zuzena» ezberdintzen dituzten arren, ikerlari finlandiarrek beste sailkapen bat egiten dute: iparraldeko kareliera (Viena¹, Itsaso Zuria), hegoaldeko kareliera, eta Tver zonaldeko dialektoak. Denek ezaugarri komunak dituzten arren, ezberdintasun handiak daude haien artean (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 3).

¹ Kareliar Errepublikako iparraldeko zonaldeari Itsaso Zuriko Karelia edo Vienako Karelia deitzen zaio (Burlian, Sharlima, Alavesa, Arhipainen, 2019: 278).

Karelieraren estandarizazioa ez da lortu oraindik. Historikoki, Karelian errusieraz eta finlandieraz irakatsi izan dute, eta 1920ko hamarkadan hizkuntza berpizteko ahalegin bat egin zenean finlandieraren dialektotzat hartzen zen. 1930eko hamarkadan kareliera estandarizatu bat sortzen saiatu ziren, eta ez zen egon saiakerarik 1980ko hamarkadara arte. Gaur egun karelieraren estandarizazioa oraindik eztabaidarako gaia da. «Kareliera zuzen» eta olonets/aunus idatziak garatzen ari dira, baina ezberdintasun handiak daude idazten eta hitz egiten den karelieraren artean (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 1-3).

3. Kareliar lurren gaineko borroka

Laneko atal honetan karelieraren historiaren zati bat kontaktzen saiatu naiz. Horretarako, XIX., XX. eta XXI. mendeetan zentratu naiz, eta batez ere Finlandiaren eta Errusiaren arteko gatazketan, bi horien arteko erlazioek uneoro eragina izan baitute karelieraren egoeran. Kontuan izan behar dugu duela gutxi arte kareliera finlandieraren aldaeratzat hartua izan dela, eta horrek bere egoeran eragin handia izan du. Beti egon da beste herrialde handiago batzuen menpe, eta Mendebaldeko eta Ekialdeko Karelia ia beti herrialde ezberdinen zati izan dira.

3.1. Finlandia eta Errusiaren arteko gatazkak

Kareliako lurak lortzeko borroka beti egon da bizirik, batez ere 1323z geroztik (hau da, Nöteborgeko bakeaz geroztik). Orduan finlandiar hiztunak hirutan banatu ziren: Suedian Finlandian, eta Errusian. Karelia eztabaida-arrazoia izan da urte luzez: Errusian bertan (lehenengo Novgoroden eta gero Moskun), Suedian eta Finlandian, Nöteborgeko baketik Moskuko armistiziora arte (Austin, 1987: 183).

Finlandia 1809an sartu zen Errusian, eta orduan hasi ziren finlandiarrak kareliarrei buruz gehiago ikertzen. Finlandiar nazionalismoa gora zihoan, eta Karelia Finlandiaren zatitzat hartzen zen, izan ere, Kalevala finlandiar poema epikoak, finlandiar kulturaren sinbolo handia, bertan kokatu ziren (Austin, 1987: 184) eta Karelia Bilina errusiar kontakizun epikoen kokalekua ere bada (Kangaspuro, 2007: 2).

Finlandia Suediaren menpe zegoen, baina Errusia handiagotzen zegoen heinean Suediak jada ezin zion Finlandiari eutsi. 1709an, Paltovako guduan, Petri I. Errusiakoak Suediari irabazi zion, eta Suediak Baltikoko potentzia handi bat izateari utzi zion. Hala ere, gerra

napoleonikoak iritsi arte Errusiak ez zuen guztiz bereganatu Finlandia. Finlandia Errusiako tsarraren Dukerri Handia bihurtu zen, administrazioa finlandiarrek kontrolatzen zutelarik. Hala ere, inbasioak ez zuen finlandiaren errusifikazioa ekarri (Vehviläinen, 2002: 2).

1905ean Japoniaren aurkako gerraren ondoren grebak egon ziren Errusian eta Finlandian, eta suediarrek Finlandian ezarritako neurriak ezabatu ziren. Horrekin batera Errusiak Finlandian ezarritako errusifikazio-neurriek gora egin zuten (Vehviläinen, 2002: 3). Finlandiarrek neurri horiei aurre egiteko Errusiarekiko mugan kareliarrentzako eskolak jarri zituzten. Hala ere, laster lortuko zuten hainbeste desira zuten independentzia politikoa (Austin, 1987: 185-186).

3.1.1. Finlandiaren independentzia eta Tartuko Tratatua

Finlandiak 1917ko abenduaren 6an lortu zuen independentzia, sobietar iraultza hasi berri zela. Hala ere, handik gutxira, 1918an bertan, finlandiar gerra zibila hasi zen, «gorrien» eta «zurien» artekoa. Gorriek errusiarren laguntza izan zuten, eta zuriek, berriz, Alemaniarena. Zuriek irabazi zuten, eta gobernu berriarekin batera «Finlandia Hobe» baten ideia sortu zen, hau da, Karelia bereganatuko zuen Finlandia baten ideia. Ladoga/Luadogu eta Onega/Oniegu lakuetatik Itsaso Zurira arte iristen zen «muga natural» bat defendatzen zuten finlandiarrek. Hau da, Karelia Finlandiatzat hartzen zuten, eta horrekin batera kareliar hizkuntza finlandieraren dialektotzat (Vehviläinen, 2002). 1920ko urriaren 19an Tartuko Tratatua sinatu zuten, eta Finlandia Dukerri Handia zeneko lur antzekoekin geratu zen. Horrekin batera, Karelia Errusiaren menpe geratu zen (Austin, 1987: 186). Orduan Edvard Gyllin eta Yrjö Sirola finlandiar politikariak Leninekin bildu ziren eta Kareliar Langileen Komuna sortu zuten, SESBren barruko zonalde autonomo bat. Hizkuntzaren inguruko eztabaida handiak egon ziren, eta hasieran ez zuten hizkuntza ofizialik ezarri, baina aldizkariak finlandieraz idazten zituzten.

Politika tsaritsak alde batera utziz, boltxebikeak tokiko hizkuntzak sustatzen hasi ziren hezkuntzan, gobernuan, administrazioan eta kulturean. Hori Tartuko Tratatuan erabaki zuten, eta Errusia kareliar separatismoaren aurka zegoen arren, «tokiko hizkuntza herrikoia» zela bermatu zuen, administrazioan, hezkuntzan eta legean (Austin, 1987: 187).

Finlandian komunismoaren eta Errusiaren aurkako jarrera gailendu zen, eta hortan Kareliaren auziak ere eragina izan zuen. 1921ean Ekialdeko Karelian boltxebikeen

aurkako altxamendu bat egon zen, eta zenbait finlandiarrek muga zeharkatu eta parte hartu zuten. 1923an, berriz, boltxebikeek Ekialdeko Karelian Kareliako Sobietar Errepublikak Sozialista Autonomoa ezarri zuten. Bertan Gerra Zibilean Finlandiatik Kareliara aldatutako gorriak ziren buru, eta hori zapalkuntza etniko eta politikoaren mozorrotzat hartzen zuten Finlandian (Vehviläinen, 2002: 14).

Sobietar Kareliako burua zen Edvard Gyllinek Lenini esan zion kareliera finlandieraren dialekto bat zela, eta finlandiera Ekialdeko Kareliako hizkuntza ofiziala bihurtzea lortu zuen 1929an. Finlandiarrak gutxiengoa ziren Karelian, eta kareliarrek ez zuten ondo ulertzen finlandiera. Beraz, kanpoko gobernu bat eta hizkuntza ezezagun bat ezarri zizkieten (Austin, 1987 :188).

3.1.2. Stalinen garbiketa-politikak

Kareliara finlandiar eta jatorri bereko ipar amerikar asko mugitu ziren, baina 1934–35 artean finlandiar buru asko haien postuetatik kendu zituzten. Kareliako «Jaegar» brigada disolbatu zuten eta ofizial asko haien postuetatik kendu zituzten (M. Austin, 1987: 188-189); (Takala, 2018: 143-157). Orduan hasi ziren Stalinen garbiketa-politikak, eta Finlandiatik etorritako immigrante horietatik asko tirokatuak edo kontzentrazio-eremuetara bidaliak izan ziren, batez ere Siberiara. Garbiketek 1937an gorakada izan zuten, Stalinek Ekialdeko Kareliako nahiz Ingriako finlandiarrak kanporatu zituelarik. 1938an bukatu ziren purgak, eta laster hasi ziren biziraun zuten finlandiarrak haien etxeetara itzultzen (Vehviläinen, 2002: 21); (Saramo eta Kangaspuro, 2011: 13-14).

Purga Handiko biktimak milioi bat eta erdi inguru izan ziren, eta guztira 17 herritartasun ezberdinetako jendearen aurkakoak izan ziren. Haien herritartasunagatik, ideologiagatik (mentxebikeak, anarkistak...), lanbideagatik (adib. trenbideetako langileak), edo hitz egite hutsagatik kondenatu zituzten herritarrak. Ideologiari dagokionez, gehienbat Trotskiren jarraitzaileen aurkako neurriak hartu ziren, eta Stalinen purgak hein handi batean Trotskiren eragina ezabatzeko eginak izan ziren. (Takala, 2018: 143-150).

Garbiketa-politiken biktima horiei «herriaren traidore» deitu zitzaizen, eta askotan beren bikotekide edo seme-alaben aurkako neurriak ere hartu zituzten. Sobietar Batasuneko herritarren artean «herriaren arerioaren» irudi bat zabaldu zen, eta nolabait herritarrek ere purga horiek legitimotzat hartzea lortu zuten. Karelian garbiketa-politikak asko zentratu ziren, alde batetik, bere kokapen geopolitikoagatik, hau da, mugan zegoelako, eta, bestetik, «finlandiar espioitza» ekiditeko (Takala, 2018: 143-150). Garbiketa-politika

horiek gaur egun Kareliako Errepublikan errusiarrak gehiengoa izatearen arrazoietakoa bat dira.

3.1.3. Idatzizko kareliera bat

Finlandiar buruzagi guztiak boteretik kendu zituzten arren hizkuntzaren arazoak iraun zuen, eta ez zekiten zein hizkuntza egin ofizial eta koofizial. Hortik gutxira tver dialektoko kareliera idatzi bat sortu zuten, latinezko alfabetoan idatzia, eta karelierazko hainbat testu eta hiztegi sortu zituzten (Austin, 1987). Finlandiera debekatu egin zuten eta tver dialektoko kareliera ofiziala egin zuten, alde batetik finlandiarren aurka, baina baita kareliarren aurka ere, dialekto bat bakarrik egin baitzuten ofizial, eta ez zuten kareliar guztiak ulertzen (Laitila, 2001: 107). Idatzizko kareliera bat sortzeko ahalegin handia egin zuen pertsona bat Dmitry Bubrikh izan zen. Uste zuen kareliera errusiar hiztegiarekin aberastu egingo zela, baina azkenean ez errusiarrek ez kareliarrek ulertzen ez zuten kareliera bat lortu zuen. (Austin, 1987); (Kryuchkova, 2002).

3.1.4. Neguko Gerra

1939ko irailaren 1ean Alemaniak Poloniari eraso egin zion, Bigarren Mundu Gerrari hasiera emanez. Egun batzuk lehenago, Alemaniak eta Sobietar Batasunak elkar ez erasotzeko tratatua sinatu zuten, bien eraginaren arteko muga Lituaniaren iparraldean geratu zelarik. Pakto horretan herrialde bakoitzaren eraginpean zeuden herrialdeak zein ziren zehaztu zuten, eta Finlandia Sobietar Batasunaren eraginpean geratu zen.

Ondoren Finlandiaren eta Sobietar Batasunaren arteko negoziaketa hasi zen. Sobietar Batasunak Leningrado defendatzeko behar zituen zenbait lur eskatu zizkion Finlandiari, horien artean Ekialdeko Kareliaren zati txiki bat, konkretuki Vyborg hiriaren ingurua, baina Finlandiak ez zuen onartzen halako traturik. 1939ko azaroaren 9an hartu zuten Moskutik Finlandiari eraso egiteko erabakia, elkarrizketa amaitu bezain laster (Vehviläinen, 2002: 34-42).

1939ko azaroan hasi zen Sobietar Batasunaren eta Finlandiaren arteko gerra. Gerra hasteko jazo ziren gertakariak oso bitxiak izan ziren. Mainila herrixkan eraso bat egon zen, eta sobietarrek Finlandiari bota zioten errua, baina finlandiarrek haiek ez zirela izan zioten. Gerora Sobietar Batasuneko Kanpo Arazoetako Ministro zen Molotoven proposamen bat eta NKVDren zerrenda bat aurkitu dira, eta bertan jartzen duenagatik badirudi sobietarrek burutu zutela gertakaria. Sobietar Batasunak eraso burutu zuenean, bost alderditako gobernu zentro-eskuindar bat sortu zuten Finlandian. Kanpo Arazoetako

Ministro Tanner izendatu zuten, finlandiar langileen mugimenduko liderra, eta sobietarrek azken horri bota zioten elkarrizketekin ez jarraitzearen errua (Vehviläinen, 2002: 43-47).

Hortik gutxira Terijoki herria okupatu zuten sobietarrek, eta Finlandian Sobietar Batasunaren babespean finlandiar gorrien «Errepublika demokratikoa» ezarri zuten, Otto Wille Kuusinenen gidaritzapenean, momentuan Finlandiako Alderdi Komunistako burua zena. Kuusinenek Ekialdeko Karelia eskatu zion Sobietar Batasunari, «Finlandiako Errepublika demokratikoari» Sobietar Kareliako zati bat eman zitzaion, eta Finlandiak Kareliako istmoaren hegoaldeko zatia eman zuen bueltan. Finlandiak Nazioen Ligara jo zuen laguntza bila, eta azkenean haien laguntzarik gabe lortu zuen Aland irlak bereganatzea (Vehviläinen, 2002: 47-50).

Finlandiarrek «Mannerheim lerroa» izeneko defentsa bat sortu zuten Ladoga/Luadogu aintziratik Finlandiako Golkora arte, eta hari esker sobietarrei hainbatetan irabazi zieten. Finlandiaren arrakasta ikusita, haren alde jarri ziren Erresuma Batua eta Frantzia, eta Erresuma Batuak zenbait tropa bidali zituen bertara. Hala ere, Finlandiak ez zuen nahi potentzia handien arteko gerla batean sartu (Vehviläinen, 2002: 54-70).

Sobietar Batasunak Kuusinenen gobernuaren alde batera utzi eta berriz Leningrado defendatzeko erabakia hartu zuen. Finlandiak ez zion SESBri Hango eman nahi, eta negoziazioek ez zuten aurrera jarraitu. Ondoren Sobietar Batasunak Kareliako itsmoari eraso egin zion, eta Mannerheim lerroarekin amaitu (Vehviläinen, 2002: 73).

Lehen gerra fase hori 1940eko martxoaren 12an amaitu zen, Moskuko Bake Tratatuekin batera. Finlandiak lur asko galdu zituen, horien artean ia Kareliaren erdia eta Vyborg hiria. Horren ondorioz finlandiar askok beren etxetik alde egin behar izan zuten, horien artean gehienak kareliarrak, eta asko baserritarrak zirenez lantzeko lur berriak eman zizkieten (Vehviläinen, 2002). Orduan sortu zen Kareliar-Finlandiar Sobietar Errepublika Sozialista, eta finlandierak lekua kendu zion karelierari. (Austin, 1987: 194).

Kareliar-Finlandiar Sobietar Errepublika Sozialistak 1956 arte iraun zuen, eta ondoren berriz Kareliako Sobietar Errepublika Sozialista Autonomoa ezarri zuten, eta ordutik Karelia Errusiako Sobietar Errepublika Sozialistaren pareko izatetik haren zati izatera pasatu zen. Horrekin batera, Sobietar Batasuneko Errepublika Sozialistak hamasei izatetik hamabost izatera pasatu ziren.

Butlivok (2016: 22) Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren artxibategiak aztertu ditu aldaketa horren zergatia aztertzeko, eta diotenaren arabera, jada urtebete lehenago hartu zuten Kareliar-Finlandiar Sobietar Errepublika Sozialistari amaiera emateko erabakia, errepublikak izandako porrot ekonomikoagatik. Erabaki horren beste arrazoietako bat Finlandia eta Sobietar Batasunaren arteko erlazioa hobetu izana da. Herrialdeek ez zioten bata besteari eskaera gehiago egin, eta Finlandiak alde batera utzi zuen «Finlandia Hobe» bat lortzeko ideia (Austin, 1987: 198-201). Finlandierak ofizialtasuna izaten jarraitu zuen, baina bigarren hizkuntza ofiziala izatera pasatu zen, errusieraren ondoren.

3.1.5 Jarraipenaren Gerra

1940ko udaran zehar Sobietar Batasunak bake tratatuari gero eta baldintza gehiago jarri zizkion, eta Finlandia mehatxatu ere egin zuen. Beraz, Finlandiak arrazoiak zituen Herrialde Baltikoen bezala bukatuko zuela pentsatzeko, hau da, Sobietar Batasunak inbadituta. Horren ondorioz, eta Erresuma Batua eta Suediaren laguntzarik jaso ez zuenez, hurrengo aukera Alemania zen (Hannikainen, 2020: 7).

Finlandia Alemaniarekin batu zen Bizargorri Operazioan, eta ondorioz SESBk Finlandiarekin aurkakotasuna adierazi zuen eta haren aurkako eraso bat burutu zuen. Alemaniak Mendebaldeko Dvina ibaia zeharkatu zuen eta Leningradori eraso egiteko prest zegoen. Orduan jarri behar zuen martxan bere ofentsiba Finlandiak. 1941ean hasi zen Sobietar Batasunaren aurkako gerrari «Jarraipenaren gerra» deitzen zaio, Neguko Gerraren jarraipen moduko bat baita (Vehviläinen, 2002). Une horretan Ekialdeko Kareliako eskoletan finlandiera erabiltzen zen eta bertako umeak finlandiera ikasten hasi ziren (Austin, 1987: 196).

Finlandiarrak Kareliako itsmoan aurrera joan ziren, Kareliako muga zaharrera iritsi ziren, eta Petroskoi/Petrozavodsk hiriburua ere inbaditu zuten. Finlandia Errusiako lurretan zehar aurrera zihoala, abuztuaren 4ean, Stalinek esan zuen Finlandiak Alemaniarekin erlazioa moztuz gero posible zela bake-akordio berri bat sinatzea, eta Erresuma Batuak ere errusiar lurraldearen inbasioa gelditzeko esan zion (Vehviläinen, 2002: 95-98).

Finlandiak Moskuko Bakeko muga zeharkatu zuenean, Estatu Batuak ere SESBren alde lerratu ziren eta laguntza armatua bidaltzen hasi ziren. Erresuma Batuak ultimatum bat eman zion Finlandiari, operazio militarrek gelditzeko esanez. Stalin ere ados zegoen, Finlandiak ez zuen bere mugetan atzera egin behar baina eraso gelditu behar zuen (Vehviläinen, 2002: 98-100).

Erresuma Batuaz gain, Kanadak, Australiak, Indiak eta Zelanda Berriak ere gerra deklaratu zioten. Finlandiak ez zuen aurrera jarraitzeko edo Murmanskeko zonaldea inbaditzeko intentziorik, baina bere muga ondo defendatzen zuen (Vehviläinen, 2002: 100).

Finlandia gerran arrakasta izaten ari zen arren soldadu asko galdu zituen, eta Alemaniak ez zuen espero zuen arrakasta izan Errusian. Finlandiak ez zion lagundu Alemaniari Murmanskeko trenbidea mozten, eta ez zion laguntzarik eman Leningradoren aurkako erasoan. Finlandiarrek uste zuten Alemaniak gerra galduko zuela, eta horixe bera baieztatu zuten Stalingradeko guduan, baina, hala ere, Karelia okupatzen jarraitzea erabaki zuten (Hannikainen, 2020: 16). Gerra hartan Finlandiak Ekialdeko Karelia okupatu zuen, baina Karelia oso errusifikatuta zegoen orduan, eta sobietarrek zonaldea ia guztiz hustu zuten. Bestalde, bizi-baldintzak oso txarrak ziren eta ez zegoen ia janaririk.

Berehala hasi zen Ekialdeko Kareliako biztanleen «finitizazioa». Tokiei finlandiar izenak jarri zitzaizkien, adibidez, Petroskoi/Petrozavodsk hiriburuaren izena aldatu zuten, eta Äänislinna neologismoa erabili zuten izendatzeko. Populazioa, berriz, «nazionalen» eta «ez-nazionalen» artean banatu zuten. Errusieraz hitz egiten zuten kareliarrak ere lehenengoaren barruan sartu zituzten. Bigarrenak, berriz, Errusiara kanporatuak izango ziren. 1942ko bukaerarako 110 eskola eraiki zituzten ume «nazionalentzat». Hezkuntza finlandieraz jasoko zuten, eta ideologia patriotiko eta kristau bat ezarriko zitzaien. Helduei ere finlandiar baloreak ezarri zitzaizkien, eta «nazionalei» lurak eman zizkieten (Vehviläinen, 2002: 105-106).

«Ez-nazionalak» kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten, baina Ekialdeko Kareliaren okupazioak galera ekonomia ekarri zion Finlandiari, eta Alemaniaren janaria ere iristen ez zenez, gosete handia egon zen Finlandian, eta kontzentrazio-esparruetara janaria bidaltzeari utzi zioten. Jende piloa hil zen kontzentrazio-esparruetan 1942an, horietatik asko gerran finlandiarrek hartutako sobietar presoak (Vehviläinen, 2002: 106-107).

Finlandiarrek ezin izan zituzten «ez-nazionalak» bota. Azkenean haientzako ere eskolak jarri zituzten, eta denei janari-kantitate berbera banatzen hasi ziren, eta kontzentrazio-esparruei «lekualdatze-esparru» izena jarri zieten, kontzentrazio-esparru batek baina baldintza hobeak zituzten tokiak baitziren (Vehviläinen, 2002: 107).

Sobietar autoritateek kanporatutako kareliarrek, beren sorterrira itzultzean, bertan geratu zirenek baina askoz baldintza okerragoetan aurkitu zuten beren burua. Finlandiarrek

Ekialdeko Karelian baldintzak hobetzen jarraitu zuten, baina Finlandia Hobe bat lortzeko ametsa 1944ko ekainean amaitu zen, Armada Gorriak Kareliaren gehiengoa hartu zuenean (Vehviläinen, 2002: 107, 108). Izan ere, Finlandiak ez du galdutako Kareliako zatia berreskuratzeko saiakerarik izan ordutik. Alemaniak Finlandiari eskatzen zion Sobietar Batasunarekin bake-trataturik ez sinatzeko, eta denbora batez ez zuen bakerik onartu, Alemaniaren janaria eta laguntza militarra jasotzen zuelako, baina hori irailean amaitu zen (Hannikainen, 2020: 16).

3.1.6 Gerraren amaiera

Gerra 1944ko irailaren 19an amaitu zen, Moskuko Armistizioarekin batera. Armistizio horren baldintzetako bat alemaniar tropak Finlandiatik kanporatzea zen. Egun hartan bertan, alemaniarrek Hogland irlak hartzen saiatu ziren, baina arrakastarik gabe. Finlandiarren eta alemaniarren arteko gerra urriaren 1ean hasi zen. Urtea amaitzerako alemaniarrek alde egin zuten Finlandiatik, baina herrialdea egoera negargarrian utzi zuten (Vehviläinen, 2002: 148-151).

Ondorioz, kareliarrak Neguko Gerra nahiz Jarraipenaren Gerra bukatzean Finlandiara joan behar izan ziren, Sobietar Batasunak Karelia bereganatu zuelako. 407.000 pertsona inguru mugitu ziren Kareliatik Finlandiara, eta gehienak nekazaritzan jarri ziren lanean mugitzerakoan. Beraz, kareliar asko hiru aldiz mugitu behar izan ziren urte horietan, eta asko ez ziren Kareliara itzuli. (Danielsbacka, Aho, Lynch, Pettay, Lummaa eta Loehr, 2020: 130-131).

Armistizioaren ondoren «arriskuaren garaia» iritsi zen; Finlandiak baldintzak beteko ez balitu okupatuko zutenaren beldurra zuen. Sobietarrek gerrako krimenen erruduntzat hartzen zituztenak kartzelara sartu behar izan zituzten, eta horien artean gerran zehar Finlandiako lider politikoak izan zirenak zeuden. 1947ko otsailaren 10ean sinatu zuten Parisko Bake Tratatu, eta horrekin batera Finlandiak Karelia behin betiko galdu zuen. Sobietar Batasunak bere lurraldeko jendearekin bete zuen Karelia (Vehviläinen, 2002: 167-174).

Ondorengo taulan ikusi dezakegu nola urteetan zehar errusiarren kantitatea handitzen joan den, eta kareliarrena, berriz, gutxiagotzen. Aldaketa handiena 1926 eta 1956 artean ikusi dezakegu; horren arrazoi nagusia gerraren ondoren lurraldea beste leku batzuetako errusiarrez betetzea izan daiteke. Kareliarren kantitatea gradualki doa jaisten, eta finlandiarren kantitatea ere 1926tik 1956ra handitu zen arren, askoz gehiago izango

lirateke herri horren aurkako jazarpena gertatu ezean. Gerora gutxitzen joan dira, asko gerraren ondoren beren sorterrira itzuli baitziren.

1. taula: Ekialdeko Kareliako biztanleria urteetan zehar

	1926	1956	1970	1979	1989	2002
Biztanleria osoa	260.734	651.346	713.389	732.060	790.150	716.281
Errusiarrak	153.967 (% 59,05)	412.773 (% 63,37)	486.198 (% 68,1)	522.152 (% 71,32)	581.571 (% 73,6)	548.941 (% 76,64)
Kareliarrak	100.781 (% 38,65)	85.473 (%13,11)	84.180 (% 11,8)	81.248 (% 11,09)	78.928 (% 9,99)	65.651 (% 9,17)
Finlandiarrak	2.544 (% 0,97)	27.829 (% 4,27)	22.174 (% 3,1)	20.098 (% 2,75)	18.420 (% 2,33)	14.292 (% 2)

(Karlajainen, Puura, Grünthal eta Kovaleva, 2013: 32).

3.2 Karelia eta kareliera gerraren ondoren

Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatinen (2012: 1) arabera, Bigarren Mundu Gerraren ondoren gizarte sobietar bat eraikitzen hasi ziren Karelian. Sobietar Batasunean hezkuntza, administrazioa eta kultura errusieraz ematen zirenez, estatus hobea zeukan, eta kareliera ama-hizkuntza gisa zuten guraso askok etxean beren seme-alabei behintzat errusieraz hitz egiten zieten (Laitila, 2001: 107).

1989an hasi ziren karelieraz eta livviz irakasten. Livviari dagokionez, batzuk karelieraren dialektotzat hartzen duten arren, beste batzuek hizkuntzat hartzen dute, oso ezberdina baita (Laitila, 2001: 107). 1991ean, Kareliako Errepublikak orain duen izena hartu zuen urtean, kareliar jendearen lehen kongresua ospatu zen Olonets/Aunusen. Bertan muturreko alderdia eta mugimendu moderatua sortu ziren, kareliera bigarren hizkuntza ofiziala izatea proposatu zuten, eta momentu hartatik finlandierak bigarren hizkuntza ofiziala izateko aukera galdu zuen. Urte hartan bertan onartutako lege baten ondorioz kareliar populazio handia zegoen herrialdeetan kareliera erabiltzen hasi ziren hezkuntzan, administrazioan eta kulturean. Hortik gutxira, 1994ean, kareliarrek beren hizkuntzan ikasteko eskubidea zutela zioen lege bat onartu zuten (Kryuchkova, 2002: 2).

Egoera ekonomikoagatik ez dira praktikan jarri karelieraren egoera hobetzeko legeak. Horrez gain, kareliera ez da bigarren hizkuntza ofizial gisa onartu. Bestalde, arazo

finantzarioak direla-eta, gaur egun karelierari eta bepsaerari buruzko ikerketa eta irakaskuntza arriskuan daude. Hala eta guztiz ere, arazo larriena honako hau da: eskoletan erabiltzen den hizkuntza inork hitz egiten ez duen hizkuntza artifizial bat dela (Laitila, 2001: 108).

Kareliako Errepublikako legediaren arabera, Kareliako lehen hizkuntza errusiera da, eta ondoren tokiko hizkuntzaren estatusa dutenak kareliera, bepsaera eta finlandiera dira. Lege horrek bermatzen ditu, besteak beste, hizkuntza-eskubideak, eskubide zibilak, hizkuntzen estatus legala, eta errerepublikako beste hizkuntza batzuentzat babes legal, sozial eta ekonomikoa (Kryuchkova, 2002: 2-3).

4. Kareliaren egoera eta kareliarren identitatea gaur egun

Aurreko atalean kareliarrek Bigarren Mundu Gerran jasan behar izan zituzten gorabehera guztiak ikusi ditugu. Gertaera horiek kontuan hartuta, zein da gaur egun karelieraren egoera? Zer sentitzen dira kareliarrak?

Lanaren atal honetan bi galdera horiei erantzuten saiatuko naiz. Horretarako lehenik eta behin errusiar Kareliari buruzko analisia egin dut, eta ondoren finlandiar Kareliari buruzkoa. Egoera ezberdina da bi toki horietan. Izan ere, Errusian hizkuntza ofiziala ez den arren, «tokiko hizkuntzaren» estatusa dauka, eta Kareliak errepublika propioa dauka. Finlandian, berriz, egoera bestelakoa da: kareliarrak Finlandia guztian zehar daude sakabanatuta, Finlandiar Independentziaren ondoren eta Bigarren Mundu Gerran bertara mugitu baitziren. Beraz, hiztunak ez dira leku bakar batean kokatzen, eta, horrez gain, kareliarak ez du inongo onarpenik finlandiar legedian.

4.1. Kareliera eta kareliar identitatea Errusian

4.1.1. Errusiako egoeraren analisia

Kareliako Errepublikan gehiengo errusiarrak dira (% 70,3) eta kareliarrak, berriz, % 9,2. Kareliar horien artean erdiak baino gutxiagok dauka kareliera ama-hizkuntza gisa, eta gutxiagotuz joan dira (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 1-2). Kareliako Errepublikaren barruan hamabost zonalde daude, eta hirutan soilik dago karelieraz ikasi eta administrazioan aritzeko aukera, eta praktikan kareliar etnikoen laurden batek soilik dauka karelieraz ikasteko aukera. Bestalde, gaur egun kareliera gehienbat zaharrek erabiltzen dute. Ume askok gehiago hitz egiten dute errusieraz eta hobeto moldatzen dira hizkuntza horretan (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 2-10).

Gaur egun kareliar askok nahiago dute errusiera kareliera baino, errusiera «hizkuntza globaltzat» hartzen baitute, eta kareliera, berriz, «atzeranzko hizkuntzatzat» (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 5-6). Hau da, hobe ikusita dagoela errusieraz hitz egitea, herrialdean orokorrean erabiltzen den hizkuntza delako, eta kareliera soilik eremu pribatuan eta gutxiago erabiltzen denez, zenbaitek zaharkitua geratu dela uste dute.

Errusiako kareliarrek duten identitateari dagokionez, kareliar identitatea sustatzeko ahaleginak egin diren arren, askok ez dute kareliar identitateari buruzko ideia garbi bat eta haien ama-hizkuntza kareliera izan arren haien burua ez dute kareliartzat hartzen (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 3-7). Errusiako Federazioan eta Sobietar Batasunean eremuai izenak haien talde etnikoen arabera jarri zaizkie, eta, beraz, Kareliako Errepublikako biztanleek beren burua kareliartzat hartzen dute kareliar hizkuntza eta identitatearekin lotuta egon edo ez. Beraz, «kareliarra» eremuko termino ez-etniko bat da (Hanulla, 2006: 34-35).

Identitatean eragin handia du jendearen jatorriak. 1941 eta 1944 artean Errusiako erdialdeko emigratzaile asko aldatu ziren Kareliara. Kolkhozetan ere jendea bere jatorriaren arabera kokatzen zen, eta toki gehienetan azkenean nahastu egin ziren arren, Svetogorsken (Karelia), jendea bere jatorriaren arabera banandu da (Hanulla, 2006: 36). Beraz, Karelian Errusiako beste zonalde batzuetatik datorren jende asko dago, eta horrek eragin handia izan dezake haien identitatean.

Kareliatik kanpo ez zaio inportantzia handirik ematen kareliararen erabilerari eta hezkuntzan duen egoerari, eta beharrezkoa da kareliararen biziraupenaren perspektibak behatzeko (Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatin, 2012: 11). Hizkuntza baten estatusak eta jendeak harekiko duen jarrerak eragin handia izan dezake haren egoeran. Izan ere, hizkuntza batek gizartean onarpenik ez duenean haren erabilera gutxiagotzen da.

4.1.2. Ondorioak

Karelian gehienbat errusiera erabiltzen da, eta kareliera gero eta gutxiago erabiltzen da. Hori hizkuntzaren estatusaren eta biztanleen identitatearen ondorio bat izan daiteke. Egiaz, kareliera ez da hizkuntza ofiziala Kareliako Errepublikan, eta kareliar askok zaharkituta geratu dela uste dute. Gainera, ez dago kareliaraz ikasteko aukera Kareliako Errepublikako leku askotan, eta horrek ere hizkuntzaren egoeran eragina izan dezake. Bestalde, Errusiako gainerako zonaldeetan kareliarari ez zaio ematen nahikoa garrantzia.

Horrez gain, Hanullak (2006: 35) kareliar identitate bat egon badagoela dioen arren, identitate hori ez da etnikoa, eta Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatinek (2012) dioten moduan kareliar gehienak errusiar sentitzen dira. Horretan eragin handia izan dezake 1941 eta 1944 artean Errusiako toki askotako jendea Kareliara mugitu izanak.

4.2. Kareliera eta kareliar identitatea Finlandian

4.2.1. Finlandiako egoeraren analisia

Finlandian kareliera eremu zehatzik gabeko hizkuntza bat bihurtu da. Bigarren Mundu Gerran kareliar hiztun gehienek beren bizilekuak galdu zituzten eta Finlandiako leku ezberdinetan bizitzen hasi ziren. Beraz, gaur egun kareliera Finlandiako leku askotan erabiltzen da (Sarhimaa, 2011: 1).

Bigarren Mundu Gerraren ondoren Finlandiara errefuxiatu kareliar asko mugitu ziren, 30.000 eta 40.000 artekoak. Kareliar Hizkuntzaren Elkartearen estatistika ofizialen arabera, 5.000 pertsona dira gaur egun Finlandian kareliera dakitenak (Sarhimaa, 2011: 1).

Identitateari dagokionez, Sarhimaaren (2011:1) aburuz, gaur egun Finlandian bizi diren kareliarrak finlandiar gizartean oso integratuta daude eta Karelian sustraiak dituzten finlandiarrak direla diote. Hala ere, Venhek (2021) idatzitako artikuluan, gazte finlandiar bat elkarrizketatzen du, eta badirudi hark bere burua finlandiartzat eta kareliartzat hartzen duela.

Finlandiara etorri ziren kareliar errefuxiatuek hainbat aldaera ekarri zituzten. «Kareliar zuzena» deritzon dialektoa darabilte hainbat herrixkatan, baina gaur egun gehienbat olonets/aunus kareliera erabiltzen da Finlandian, eta Finlandiar Hego-Karelian Vienako dialektoa ere darabilte. Dialekto horiek Kareliako erdialde eta iparraldean ere erabiltzen dira (Sarhimaa, 2011: 5). 1980ko hamarkadan Kareliako Errepublikan Olonets/Aunuseko eta Vienako karelierak estandarizatu ziren. Finlandian, berriz, idazteko gehienbat olonets/aunus kareliera erabiltzen da, ondoren Vienakoa eta azkenik hegoaldekoa (Sarhimaa, 2011: 6).

Finlandian karelierak ez du inongo ofizialtasunik. Konstituzioaren arabera edozein hiztunek bere hizkuntza mantendu eta garatzeko eskubidea du, eta hezkuntzako legediak bakoitzak bere hizkuntza ikasi eta mantentzearen alde egiten du. Konstituzioan hori idatzita egon arren, kareliarrek behin eta berriro eskatu diote laguntza estatuari eta ez zaie

eman. Orain arte egon den aurrerapenik handiena konstituzioan eremu urriko hizkuntza autoktonotzat hartzea izan da (Sarhimaa, 2011: 2).

Hezkuntzari dagokionez, Finlandiako Normes herrixkan karelierazko hizkuntza-habi² bat dago abian 2009tik. Ekialdeko Finlandiako Unibertsitatean Karelierazko Katedra sortu zen, eta, beraz, kareliera pixka bat erabiltzen dute goi-mailako hezkuntzan (Sarhimaa, 2011: 7).

Finlandiar legedian karelierak duen onarpen eza hein handi batean gaur egun ere askotan finlandieraren dialektotzat hartzen delako izan daiteke, eta finlandieraren beste dialekto batzuekin nahasten dutelako: Iparraldeko eta Hegoaldeko Karelian erabiltzen diren finlandierazko dialektoei «kareliera» deitzen diete. Oro har, Finlandiako kareliar hiztun asko ez dira ohartzen beste hizkuntza bat dakitela, finlandieraren eta haiek hitz egiten dutenaren arteko ezberdintasunak ikusten dituzten arren. Izan ere, aditu eta politikari askok urte luzetan zehar ez dute onartu kareliera hizkuntza bat dela izatez (Sarhimaa, 2011: 6).

Finlandian Bigarren Mundu Gerraren ondoren kareliar kultura eta hizkuntza alde batera utzi zituzten, baita gaitzetsi ere. Autoritateak ez ziren saiatu kareliar hizkuntza eta kultura mantentzen. Karelierak errusierarekin dituen antzekotasunak eta erlijio ortodoxoa direla-eta, kareliarrak «susmagarritzat» edo «ez-finlandiartzat» hartzen zituzten, eta umeak finlandieraz hitz egitera bultzatzen edo behartzen zituzten. Horren ondorioz kareliera gero eta gutxiago erabiltzen hasi ziren eta finlandiera gero eta gehiago, eta beraz, kareliar gehienek ere gaur egun finlandiera gehiago dakite (Sarhimaa, 2011: 3). Dena dela, Venheren (2021) hitzetan, gaur egun gazteak karelieran interes handia agertzen ari dira.

4.2.2. Ondorioak

Gaur egun kareliera Finlandian leku konkreturik gabeko hizkuntza bat da, gero eta gutxiago erabiltzen da eta bere hiztunek finlandiera gehiago dakite. Hala ere, gazteek karelierarekiko interes handia erakusten dute.

Kareliera oraindik askok finlandieraren beste dialekto batzuekin nahasten dute, eta ez dute hizkuntzat hartzen. Horrek bere estatusen eragin zuzena dauka, eta finlandiar gizartean onarpena izatea beharrezkoa da bere egoera hobetzeko. Horrez gain, Ekialdeko

² Hizkuntza-habia (*language nest*) Haur Hezkuntzan erabiltzen den murgilketa bidezko programa bat da, haur elebidun edo elebakarren belaunaldi berri bat sortzeko egina (Okura, 2017: 2).

Kareliatik etorri ziren errefuxiatuak «susmagarritzat» edo «ez-finlandiartzat» hartzen zituztenez, kareliera gero eta gutxiago erabiltzen hasi ziren, eta horren eragina ikusi daiteke gaur egun hizkuntzak duen erabileran eta estatusen. Gainera, Finlandian karelieraz ikasteko dauden baliabideak oso urriak dira, eta hezkuntza oso baliagarria izan daiteke hizkuntza bat berpizteko orduan.

Bestalde, kareliarren identitateari dagokionez, badirudi askok jatorri kareliarra duten finlandiartzat hartzen dutela haien burua, eta beste batzuk finlandiar zein kareliar sentitzen dira.

5.Kareliar identitatearen gaineko ikerketa

Aurreko puntuan zenbait artikulutatik abiatuta gaur egun Finlandiako Karelian eta Errusiako Karelian hizkuntzak duen egoera eta herritarrek duten identitatea irudikatzen saiatu naiz, eta zenbait ondorio ateratzea lortu dut, baina kareliar identitatearen irudi borobilago bat lortzea eta kareliera zenbaiteraino erabiltzen duten jakitea gustatuko litzaidake. Hori lortze aldera, Kareliako biztanleei galdetzeko zenbait galdera prestatu ditut. Artikuluetatik abiatuta bi herrialdeetan ondorio antzekoak atera ditudanez, Finlandia nahiz Errusiako kareliarrentzat galdera berdinak planteatu ditut. Hona hemen planteatutako galderak:

1. Ba al dakizu karelieraz?
2. Zein da gehien erabiltzen duzun hizkuntza?
3. Gaur egun gazteek karelieraz helduek baino gutxiago egiten dutela uste duzu?
4. Gazteek kareliarrekiko interesa erakusten dutela uste duzu?/ Kareliarrekiko interesa duzu?
5. Karelieraz ikasteko aukera izan duzu?
6. Nola identifikatuko zenuke zure burua? Finlandiar, errusiar edo kareliar? Eta zergatik?

«Ba al dakizu karelieraz?» eta «zein da gehien erabiltzen duzun hizkuntza?» galderak planteatu ditut lehenik eta behin Kareliako zenbat biztanlek dakiten karelieraz jakiteko, eta zein hizkuntza erabiltzen duten gehien behatzeko. Izan ere, Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatinen (2012) arabera, Ekialdeko Karelian gehienbat errusiera erabiltzen da gaur egun, eta kareliera berriz, gero eta gutxiago. Sarhimaak (2011) dioenaren arabera, Finlandiako Karelian berdina gertatzen ari da. Horren harira egin dut hirugarren galdera,

ea hizkuntza belaunaldiz belaunaldi galtzen ari den eta gutxiago erabiltzen ari diren jakiteko.

Horrez gain, interesgarria iruditu zait Venhek (2021) bere artikuluan aipatu izana gazteek karelierarekiko interesa dutela, eta Kareliako gazteriak hizkuntza honekiko interesa erakusten duen behatu nahi izan dut. Beraz, hurrengo bi galderak planteatu ditut: «gazteek karelierarekiko interesa erakusten dutela uste duzu?» eta «karelierarekiko interesa duzu?». Lehenik eta behin, orokorrean elkarrizketatuek gazteek interesa duten ala ez uste duten jakin nahi dut, eta, horrez gain, erantzuten ari den pertsonak berak interesa duen jakin nahi dut, gaztea izan ala ez.

Kareliera ez da ofiziala ez Finlandian ez Errusian, eta gutxi dira karelieraz hezkuntza jasotzen dutenak. Karelieraz ikasteko aukera elkarrizketatu ditudan zenbat pertsonak jakiteko, hortaz, hurrengo galdera planteatu dut: «karelieraz ikasteko aukera izan duzu?».

Azkenik, honako galdera hau planteatu dut, kareliarren identitatea behatze aldera: «nola identifikatuko zenuke zure burua? Finlandiar, errusiar edo kareliar? Eta zergatik?». Finlandiako nahiz Errusiako kareliarrek dute hiru identitateetako bat izateko aukera. Errusiako kareliarrei dagokienez, alde batetik finlandiar sentitu daitezke, bertan finlandiarrak bizi izan zirelako edo «Finlandia Hobe» horretan sinesten dutelako. Bestela, baliteke haien burua errusiartzat hartzea, Klementyev, Kovaleva, eta Zamyatinen (2012) arabera hori baita gehiengoaren jarrera. Bestela, kareliartzat hartu dezakete haien burua, eta benetan interesatzen zaidana azken horiek zenbat diren jakitea da.

Finlandian bizi diren kareliarrek ere hiru aukerak dituzte. Finlandiartzat hartu dezakete beren burua, asko ondo integratu baitira finlandiar gizartean. Beste batzuk, ostera, errusiartzat hartu dezakete beren burua, Finlandian bizi diren kareliar asko Ekialdeko Kareliatik mugitu baitziren bertara. Bestela, hauek ere kareliartzat hartu dezakete beren burua.

5.1. Elkarrizketak

Elkarrizketak egiteko hainbat erakunderekin jarri naiz kontaktuan, eta galderak ingelesez nahiz errusieraz pasatu dizkiet, Ekialdeko Kareliako biztanle asko hobeto moldatzen baitira errusieraz. Guztira zazpi pertsonak erantzun dituzte nire galderak, bost Finlandiako Kareliakoak eta bi Errusiako Kareliakoak. Errusiako zatia handiagoa den arren, ez dut lortu bertako jende askorekin harremanetan jartzea.

Hona hemen elkarrizketetan izan ditudan erantzunak. Lehenengo galderari dagokionez, denek erantzun dute badakitela karelieraz, edo gutxienez ulertzen dutela. Batek kareliera irakatsi ere egiten duela erantzun du, eta beste batek, berriz, bere kabuz ikasi zuela.

Beraz, denek dakite karelieraz. Ondoren zein den gehiena erabiltzen duten hizkuntza galdetu diet, eta oso erantzun ezberdinak jaso ditut. Batek erantzun dit kareliera errusiera bezainbeste erabiltzen duela, eta beste bik, berriz, batzuetan edo norbaitekin erabiltzen dutela erantzun didate. Beste guztiak gehiena beste hizkuntzaren bat erabiltzen dutela erantzun didate: finlandiera, errusiera, ingelesa... Edo horietako bi hizkuntza baina kareliera ez. Hori kontuan hartuta, elkarrizketatutakoen gehiengoak bere egunerokotasunean ez du kareliera erabiltzen, bakarra da beste hizkuntza bat bezainbeste erabiltzen duena, eta bik gehiena erabiltzen duten hizkuntza ez den arren erabiltzen dute.

Hurrengo galderan kareliera gazteek helduek baina gutxiago erabiltzen duten galdetu diet. Elkarrizketatu batek Finlandiako eta Errusiako egoerak alderatu ditu, eta erantzun dit baietz, Errusian gazteek gutxiago erabiltzen dutela, baina Finlandian ez dela hori gertatzen. Hurrengo elkarrizketatuak, berriz, gazteek eta zaharrek berdintsu erabiltzen dutela erantzun du, eta sare sozialek horretan duten garrantzia azpimarratu du, haiei esker gazteek kareliera erabiltzeko aukera gehiago baitituzte:

Errusiako Karelian gazteek helduek baina gutxiago erabiltzen dute. Finlandiar gazteriak helduek baina gehiago erabiltzen du (1. elkarrizketatua).

Uste dut kareliar gazteek hizkuntza zaharrek bezainbeste erabiltzen dutela. Sare sozialek kareliar hiztun gazteei beste kareliar gazte batzuekin loturak ematen dizkiete, beraz hizkuntza erabiltzeko aukera gehiago dituzte. Baliteke zaharrek hizkuntza beste askorekin erabiltzeko aukera berdina ez izatea (2. elkarrizketatua).

Beste lau elkarrizketatuek ere oso erantzun ezberdinak izan dituzte. Bik soilik erantzun dute gazteek gutxiago erabiltzen dutela kareliera. Denek azpimarratu dute gazteek kareliarrekiko interesa dutela, eta horrekin batera hurrengo galderari erantzun diote. 6. elkarrizketatuak hori hizkuntzaren egoera aldatzarekin lotu du. Beraz, baliteke gazteen kareliarrekiko interes horrek hizkuntzaren egoera aldatzen laguntzea. Galdera honen erantzun batzuk:

Gazteak momentu honetan kareliar hizkuntza ikasteko interes handia dute. Kurtso guztiak erabat beteta daude. Gazteek haien ondarea den hizkuntza berreskuratu nahi dute. Hori oso

garrantzitsua da, kareliar hiztun helduak oso zaharrak baitira eta jada hil baitira (4. elkarrizketatua).

Momentu honetan kareliera ikasten eta erabiltzen hasi diren hiztun gazte asko ditugu. Beraz, gaur egun egoera aldatzen ari da (6. elkarrizketatua).

Hurrengo galderari dagokionez, denek azaldu dute karelierarekiko interesa eta denek uste dute gazteek interesa dutela. Elkarrizketatu batek bere musika-taldearen berri eman dit; musika karelieraz idazten du bere anaiarekin batera. Beste elkarrizketatu batek, berriz, azaldu dit zergatik ez zuten gazte kareliarrek orain arte karelierarekiko interesa erakusten, eta orain, ordea, bai. Azaldu dit haien etxeak utzi behar izan zituzten kareliarrek trauma bat jasan dutela, eta frogatuta dagoela horrek hiru belaunaldiz iraun behar zuela. Oraingo gazteak, berriz, laugarren belaunaldikoak dira, eta jada ez dutenez trauma hori sufritzen, karelierarekiko interesa erakusten hasi dira.

Hurrengo galderan karelieraz hezkuntzarik jaso duten galdetu diet. Elkarrizketatu batek baino gehiagok azaldu didatenez, Finlandian behintzat ez dute oinarrizko hezkuntzarik erakusten karelieraz, eta hizkuntzaren inguruko ikasketak goi-mailan soilik daude gaur egun. Finlandiako elkarrizketatu guztiek, batek izan ezik, goi-mailako ikasketak bakarrik jaso dituzte. Batek, harritu nauen arren, hezkuntza karelieraz jaso duela erantzun dit, baina ez dit azalpen gehiagorik eman.

Kareliera ez dute inoiz irakatsi finlandiar hezkuntza-sisteman. Izan ere, eskolak paper aipagarria izan du kareliar hiztunak finlandiar hiztun izatera pasatzeko orduan. Hori lotsagarria da. Eta horren aurka borrokatzen dut. Kareliera Finlandian eta Europan ezagunagoa bihurtu dadin nahi dut (4. elkarrizketatua).

Ekialdeko Kareliako elkarrizketatuek ere goi-mailako ikasketak jaso dituzte karelieraz, biek Petrozavodskoko Estatu-Unibertsitatean. Hona hemen baten erantzuna:

Ez. Ez zegoen horrelako aukerarik. Baina 1994ean Petrozavodskoko Estatu-Unibertsitatean sartu nintzenean, «Kareliar eta Finlandiar hizkuntza eta literatura» ikastera, bertan irakasgaien zati bat karelieraz eta finlandieraz irakasten zuten (3. elkarrizketatua).

Azkeneko galderan haien identitateari buruz galdetu diet, eta denek hartzen dute haien burua kareliartzat. Bi elkarrizketatuk, aitzitik, beren burua lehenik eta behin kareliartzat hartzen dute, eta bigarrenik finlandiartzat. Horrenbestez, eta zenbait artikulutan irakurri dudanaren kontrara, badago kareliar identitate etniko bat.

5.2. Ondorioak

Elkarrizketatu guztiek dakite karelieraz, eta batzuek haien kabuz ikasi dute. Batek soilik erabiltzen du kareliera beste hizkuntza bat bezainbeste, gehiengoak batzuetan erabiltzen du edo ez du erabiltzen egunerokotasunean. Beraz, denak dakiten arren, hizkuntzaren erabilera ez da hain handia.

Kareliera ondo zekien helduen belaunaldia galtzen ari bada ere, gaur egun gazteak karelierarekiko interes handia erakusten ari dira. Sare sozialek kareliera gehiago erabiltzeko aukerak ematen dizkiete, eta interes horrek kareliera biziberritzen lagundu dezake. Kareliar gazteak orain hasi dira karelierarekiko interesa erakusten, eta ez lehenago, aurreko belaunaldiek haien etxeak utzi behar izatearen ondorioak sufritu behar izan zituztelako.

Hezkuntzari dagokionez, ez dago karelieraz oinarrizko hezkuntza jasotzeko ia aukerarik. Goi-mailako hezkuntza eskuratzen dutenek soilik daukate irakasgaiak karelieraz jasotzeko aukera. Hortaz, kareliarrek oro har ez dute beren ama-hizkuntzan ikasteko aukerarik.

Identitateari dagokionez, ostera, denek hartzen dute beren burua kareliartzat, edo lehenik eta behin kareliartzat eta bigarrenik finlandiartzat. Ondorioz, egon badago kareliar identitate etniko bat, identitate geografikoaz gain, eta elkarrizketatuko guztiak identifikatzen dira profil horrekin.

6.Ondorio orokorrak

Kareliera gaur egun desagertzeko arriskuan dago. Egiaz, gutxi dira karelieraz dakiten hiztunak, eta ez dago estandarizatuta. Eremu urriko hizkuntza horren dialektoak, izatez, oso ezberdinak dira, eta zaila da kareliar guztiek ulertuko duten kareliera batu bat sortzea. Horrez gain, ez du inongo ofizialtasunik eta goi-mailako hezkuntzan bakarrik ikasi daiteke karelieraz. Beraz, kareliar gutxi dira karelieraz ikasteko aukera dutenak, eta, elkarrizketetan ikusi dugunez, etnikoki kareliarrak soilik sentitzen diren biztanleak egon badaude bi herrialdeetan. Batzuen ama-hizkuntza da kareliera, eta beste batzuek beren kabuz ikasi dute. Izan ere, eta batez ere Finlandian, gazte asko karelierarekiko interesa agertzen hasi dira. Badirudi orain hasi direla erakusten karelierarekiko interesa, eta ez lehenago, aurreko belaunaldiek oraindik beren sorterrria atzean utzi behar izatearen ondorioak jasaten zituztelako. Horrez gain, kareliar hiztun asko helduak izan arren, gazte kareliarrek sare sozialen bidez elkarrekin hitz egiteko aukera gehiago dituzte. Hori

guztiak karelieraren egoera hobetzen lagundu dezake, baina horretarako ezinbestekoa da hizkuntzaren estatusa hobetzea.

Asko dira kareliera gaur egungo egoerara eraman duten eragileak. XX. mendean zehar kareliera eta finlandiera izan dira ofizialak Karelian, baina biak izan dira arrotzak bertakoentzat, «kareliera» hori ere artifiziala baitzen, errusiar hitzez betea. Horrez gain, kareliarrak beren lurraldeko biztanleen ia erdia ziren mende horren hasieran, eta gaur egun ez dira % 10era ere iristen. Horretan eragin handia izan dute Stalinek 1930eko hamarkadan burutu zituen purgek, beste herri batzuen artean finlandiarren aurka joan baitziren, eta asko zentratu ziren Kareliako zonaldean. Bestalde, kareliarren gaur egungo identitatean eta hizkuntzaren egoeran ere eragina izan dezake Finlandiak Jarraipenaren Gerran Ekialdeko Karelia okupatu izanak, bertan finitizazio bat burutu baitzuen, kareliarrei finlandiar kultura eta hizkuntza ezarriz.

Hori guztiaz gain, kareliarrek behin baino gehiagotan lekualdatu behar izan zuten, Neguko Gerraren eta Jarraipenaren Gerraren ondoren. Finlandiako toki ezberdinetara joan ziren eta asko bertako kulturara moldatu ziren. Batzuek beren burua finlandiartzat hartzen dute, edo kareliar sustriak dituzten finlandiartzat, baina badaude kareliarrak soilik sentitzen direnak. Gainera, bi gerra horiek amaitzean Errusiak toki ezberdinetako jendearekin bete zuen Karelia, eta horrekin batera kareliarrak gutxiengo etniko bat izatera pasatu ziren. Gaur egun errusiarrak Kareliako Errepublikaren gehiengoa izanik, zaila da kareliera hizkuntza ofizial izatea lortzea, edo hezkuntzan kareliera erabiltzea. Gainera, Errusiako gainerako zonaldeetan ez zaio inongo garrantzirik ematen kareliarri, eta hizkuntzaren estatusa oso garrantzitsua da bere egoera hobetu dadin.

Finlandian eta Errusian uste baino antzekoagoa da karelieraren eta kareliar identitatearen egoera. Gutxiengoa den arren, bietan dago kareliar identitate etniko bat, baita kareliarrekiko interesa duen jendea ere. Hala ere, identitate hori folklorikoa da hein handi batean; ez dut aurkitu kareliar nazionalismo bat defendatzen zuen mugimendurik edo talderik. Aurkitutako erakunde guztiak kareliar kulturaren eta hizkuntzaren aldekoak dira, baina ez dute helburu politikorik. Beraz, kareliarrekiko interesa eta kareliar identitatea bizirik daude, baina gutxi dira kareliarrak bakarrik sentitzen direnak, eta ez dute inongo mugimendu nazionalistarik sortu.

Bestalde, kareliarak duen babesari eta onarpenari dagokionez, egoera pixka bat ezberdina da Errusian eta Finlandian. Finlandiak 1947an egin zion uko Kareliari, Parisko

Tratatuarekin batera, baina orain dela gutxi arte ez du onartu kareliera hizkuntza bat dela, finlandieratik bereizia. Egiaz, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna 1992an izenpetu egin zuen, eta 1994ean berretsi, baina luzez kareliera ez zuen aipatu. Duela gutxi, berriz, 2009an, karelierari aplikatu zion Gutuna, eta orain hizkuntzari babes ematen dio Finlandiak. Hala ere, karelierak ofizialtasunik gabe jarraitzen du Finlandian, eta bertan ez da hizkuntzaren egoera hobetzeko neurririk jarri abian. Errusiak, are okerrago, 2001ean izenpetu egin zuen baina ez zuen berretsi, eta, ondorioz, karelierak ez du inongo babesik Errusian.

Hori guztia kontuan hartuta, lan asko dago egiteko oraindik karelieraren egoera hobetze aldera. Horretarako, alde batetik, karelierarekiko interesa duen jendea behar da, eta elkarrizketetan ikusi dugun moduan, interesa duten gazte asko daude. Hala ere, bestetik, hizkuntzaren estatusa hobetzeko beharrezkoa da Finlandiaren, Errusiaren eta Europar Batasunaren sostengua. Sobera berandu ez baldin bada.

7.Iturriak

7.1. Bibliografia

Abondolo, D. (1998). *The Uralic languages*. London: Routledge.

Austin, P. M. (1987). Soviet-Finnish: The End of a Dream. *East European Quarterly*, 21(2), 183-205.

Burlian, T. D., Sharmila, P., Alaves, P., & Arhippainen, L. (2019). Revitalizing Viena Karelian dialect and culture with gamification. *GamiFIN*, (2359), 277-288.

Butvilo, A. I. (2016). Внутривполитические предпосылки упразднения Карело-Финской ССР в 1956 году. *Ученые записки Петрозаводского государственного университета. Общественные и гуманитарные науки*, 7 (160), 16-23.

Danielsbacka, M., Aho, L., Lynch, R., Pettay, J., Lummaa, V., & Loehr, J. (2020). The Resettlement and Subsequent Assimilation of Evacuees from Finnish Karelia during and after the Second World War. In *Digital Histories: Emergent Approaches within the New Digital History* (129-148). Helsinki University Press.

Hannikainen, L. (2020). Finland's Continuation War (1941–1944): War of Aggression or Defence? War of Alliance or Separate War?: Analyzed from the International–Especially Legal–Perspective. *Baltic Yearbook of International Law Online*, 17(1), 77-121.

- Hannula, M. (2006). The Transformation of the Identity of the Karelian Isthmus of Russia. *Alue ja Ympäristö*, 35(2), 32-41.
- Kangaspuro, M. (2007). The Origins of the Karelian Workers' Commune, 1920-1923: Nationalism as the Path to Communism. *The NEP Era: Soviet Russia 1921-1928*, (1), 1-21.
- Kangaspuro, M., Saramo S. (2011). Victims and Survivors of Karelia. *Special issue of the Journal of Finnish Studies*, (15), 1-18.
- Karjalainen, H., Puura, U., Grünthal, R., & Kovaleva, S. (2013). Karelian in Russia. *Studies in European Language Diversity*, (26). Johannes Gutenberg-Universität Mainz: European Language Diversity For All (ELDIA).
- Klementyev, Y., Kovaleva, S., & Zamyatin, K. (2013). The Karelian Language in Russia: An Overview of a Language in Context. *Working Papers in European Language Diversity*, (12). Johannes Gutenberg-Universität Mainz: European Language Diversity For All (ELDIA).
- Kryuchkova, T. B. (2002, April). Effective Language Politics: The Case of Karelian. In *World Congress of Language Policies, Barcelona, Spain, April*, 16-20.
- Laitila, T. (2001). Struggle over the Karelian Language (s) and Identity. *Етнічна історія народів Європи*, (9), 107-110.
- Okura, E. K. (2017). *Language Nests and Language acquisition: An Empirical Analysis*. Doctoral dissertation, Manoa: University of Hawai'i.
- Sarhima, A. (2011). The Karelian language in Finland: An Overview of a Language in Context. *Working Papers in European Language Diversity*, (3). Johannes Gutenberg-Universität Mainz: European Language Diversity For All (ELDIA).
- Vehviläinen, O. (2002). *Finland in the Second World War: between Germany and Russia*. Hampshire: Springer.
- Venhe, N. (2021). Revival of the multivocal Karelian language begins at UEF. Berreskuratuta: [Revival of the multivocal Karelian language begins at UEF | University of Eastern Finland](#). Berreskuratuta: 2022/03/15.

Такала, И. Р. (2018). Большой террор в Карелии. *Альманах североевропейских и балтийских исследований*, (3), 143-207.

7.2. Bestelako iturriak

Posta elektronikoa eta sare sozialak:

2022/04/07: Karjalan Kieden Kodi (Kareliar Hizkuntzaren Etxea) erakundearekin kontaktuan jarri nintzen eta egin nahi nituen elkarrizketen berri eman nien. Erakundeko bi kidek erantzun zizkieten nire galderari, biek errusieraz.

2022/04/07: Karjalan Liitto ry (Kareliar Batasuna) erakundearekin kontaktuan jarri nintzen Facebooketik elkarrizketen berri emanaz. Beste hainbat erakunderen kontaktuak pasa zizkidan kide batek.

2022/04/11: kareliera bere kabuz ikasi zuen gazte batekin jarri nintzen kontaktuan Facebook bidez, eta nire galderak ingelesez erantzun zituen.

2022/04/24: Karjalan Liitto ry-ren bidez kareliar abeslari baten kontaktua lortu nuen. Galderak ingelesez erantzun zituen eta elkarrizketatu nitzakeen hainbat kontaktu pasatu zizkidan.

2022/04/21: kareliar abeslariak aipatutako kontaktuei hitz egin nien, eta denek erantzun zituzten nire galderak, guztiek ingelesez.

2022/04/27: Karjalan Kieden Kodiko kide bati finlandierak Kareliako Errepublika Sobietar Sozialista Autonomoan izan zuen ofizialtasunari buruz galdetu diot, eta Карельский научный центр (Kareliar Ikerketa Zentroko) Hizkuntzalaritza, Literatura eta Historia Institutuko zientzien zuzendariordearen kontaktua pasa dit, nire galdera erantzungo duelakoan.

2022/04/30: Карельский научный центр (Kareliar Ikerketa Zentroko) Hizkuntzalaritza, Literatura eta Historia Institutuko zientzien zuzendariordeari hitz egin nion finlandierak Kareliako Errepublika Sobietar Sozialista Autonomoan izan zuen ofizialtasunari buruz galdetuz. Ingelesezt erantzun dit galdera, eta nire galderari erantzuteaz gain kareliararen historiari buruzko informazio gehiago ere eman dit.